



## GAIXOALDIAK ETA DESKONTUAK

---

Ekin eta ekin ibili ostean (sindikatuaren posizioa indartu zuten Arartekoren adierazpenaren eta epai judizial baten baten laguntzaz) Justizia Sailak ez zuen beste erremediorik izan: LEI (lanerako ezintasun iragankorra) egoeran 6 hilabete pasatuta ordainsarien %100 ordaintzea.

Gogoan izango duzunez deskontua Klase Pasiboaren sistemaren pean dauden langileei besterik ez zizkela egiten.

LAB-Justizian egiaztatu dugu zenbait pertsona oraindik ez direla jabetu horretaz eta lanerako ezintasunaren 7garren hiletik aurrera, etsia harturik, oinarriko ordainsariak eta MUGEJUK LEI dela-eta emandako subsidioa bakarrik kobratzen dute.

Ohar honen bitartez gogorarazten diegu Klase Pasiboetan kotizatzen duten langileei honako hau: gaixotasuna edo istripua dela-eta lanerako ezintasuneko 7garren hiletik aurrera MUGEJUK subsidioa onartzen emandako ziurtagiriarekin batera Justizia Administrazioako Zuzendaritzara igorri behar dutela izkribua, kobratu ez diren kopuruak erreklamatu.

Beste kontu ba da 2011tik Eusko Jaurlaritzak LEI kasuetan egiten dizkien deskontuak erkidegoko funtzio publikoko langile guztiei.

Egun hauexek dira deskontuak:

EGUNAK	DESKONTUAK
1. egunetik 3.era	ordainsari guztien %50
4. egunetik 20.era	ordainsari guztien %25
21. egunetik aurrera	ez dago deskonturik

Dena den, badira salbuespen batzuk zeinetan ez den inolako deskonturik egiten, hona hemen:

- Erditzea, adopzioa, harrera, aitatasuna, haurdunaldiगतिको arriskua edota edoskitzaro naturalak iraun bitarteko arriskua direla-eta emandako baimenetan.
- Lanbide-gertakizunengatik sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.
- Haurdunaldiaren ondorioz sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.
- Ospitaleratzea edo ebakuntza kirurgikoa egitea dakarten gertakizun arruntengatik sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.